




*Hobe da bihotza otoitzean ezartzea  
hitzik aurkitu gabe,  
ezenez-eta hitzak aurkitzea  
bihotza otoitzean ezarri gabe.*

Gandhi

Estalgia :           iguzkia ateratzean  
                          iguzkia sartzean  
                          Argiari otoitzean

# **gure otoitza gaur**

*Laugarren argitaraldia  
emendatua*



Biblia elkarte

2007

Liburu huntako otoitzak Marcel Etchehandy-k bildu, behar-orduan euskararat itzuli, eta argitaratu ditu. Izenik gabeko otoitzek egile ezezagunak dituzte.

## NUN ZER

<b>Usaiako otoitzak</b>	<b>7</b>
<b>Goizeko otoitz</b>	<b>15</b>
<b>Arratseko otoitz</b>	<b>23</b>
<b>Aitari otoitz</b>	<b>32</b>
<b>Semearen bitartez otoitz</b>	<b>45</b>
<b>Izpiritu Saindua baitan otoitz</b>	<b>50</b>
<b>Andredena Mariarekin otoitz</b>	<b>54</b>
<b>Dei laburrak</b>	<b>56</b>
<b>Behar-ordu berezi zenbaitetan</b>	<b>58</b>
<b>Jaunaren Hitza</b>	<b>65</b>

*Idorte eta ilunpe : dena neke zait : kominiatzea, otoitz egitea, Jainkoaren Hitza ausnartzea, dena, dena, Jesusi erraitea ere maite dutala... Fedezko biziari bi eskuz lotu behar nitzaio. Sendi baneza bederen Jesusek maite nauela ! Bainan ez daut holarik sekula erraiten.*

Charles de Foucauld

Alta, hori idazten zuelarik, orenak pasatzen zituen otoitzean egun guziz. Gertatua gertatu, irautea da otoitzeko biziaren gakoa. Horra zergatik Jesusek behin eta berriz emaiten daukun erakaspén hau :

“Eska eta emanen dauzue Jainkoak; bila eta aurkituko duzue; atea jo eta zabalduko zaizue. Zeren eskatzen duenak ukaiten baitu, bilatzen duenak aurkitzen, eta atea jotzen duenari zabaltzen baitzaio.

Ba ote da zuen artean aitarik, semeak arraina eskatu eta, arrainaren orde sugea emanen dionik ? Edo arrultzea eskatu eta, harrulia emanen dionik. Beraz, zuek, zirezten gaixtoek, zuen haurreri gauza onen emaiten baldin badakizue, zenbatez gehiago Aita Zerukoak emanen diote **Izpiritu Saindua**, eskatzen dioteneri !”

Ebanjelioa San Luken arabera 11, 9-13

# USAIAKO OTOITZAK

## **Kurutzearen seinalea**

**Aitaren  
eta Semearen  
eta Izpiritu Sainduaren izenean.  
Amen.**

## **Ospe Aitari**

**Ospe Aitari, Semeari,  
bai Izpiritu Sainduari,  
lehen bezala orai ere,  
hala dadila betiere.**

## **Jaunaren otoitza**

**Gure Aita zeruetan zirena,  
saindu izan bedi zure izena,  
etor bedi zure erreinua,  
egin bedi zure nahia  
zeruan bezala lurrean ere.**

**Emaguzu gaur  
egun huntako ogia.  
Barkatu gure zorrak  
guk ere gure zordunei  
barkatzen diegunaz geroz.  
Eta ez gu tentaldirat ereman,  
bainan atera gaitzazu gaitzetik.**



## **Agur, Maria**

**Agur, Maria, graziaz betea,  
Jauna da zurekin,  
benedikatua zira emazte guzien artean,  
eta benedikatua da  
zure sabeleko fruitua, Jesus.**

**Maria Saindua,  
Jainkoaren ama,  
egizu otoitz gu bekatorosentzat,  
orai eta gure heriotzeko orenean.  
Amen.**

## Sinesten dut

Sinesten dut Jainko Aita botere guzia duena baitan,  
zeruaren eta lurraren kreatzailean.

Eta Jesu Kristo haren seme bakar,  
gure Jauna baitan ;  
zoin kontzebitu baitzen

Izpiritu Sainduaren bertutez,  
sortu zen Maria Birjina ganik,  
pairatu zuen Pontzio Pilatusen manuaren azpian,  
kurutzefikatu zuten, hil zen, eta ehortzi zuten ;  
jautsi zen ifernuetarat,  
hirugarren egunean jeiki zen bizirik hilen artetik,  
igan zen zeruetarat,  
jarria dago Jainko Aita

botere guzia duenaren eskuinean,  
handik etorriko da bizien eta hilen jujatzerat.

Sinesten dut Izpiritu Saindua baitan,  
Eliza katoliko, sainduan,  
sainduen partaliertasunean,  
bekatuen barkamenduan,  
haragiaren piztean,  
beti iraunen duen bizitzean.

Amen.

## Fede aitormena

Zu baitan sinesten dut,  
 Jauna, Jainko bakarra.  
 Bataioari esker zure biziaz bizi naiz.  
 Azkar zazu ene fedea,  
 eta Izpiritu Saindua igor ezadazu  
 beti Jesu Kristo zure Semeari jarraik nakion.

*edo*

Ene Jainkoa, sinesten ditut,  
 zinez eta bihotz guziaz,  
 Elizak sinesten eta erakasten dituen egia guziak :  
 zeren zuk, egia bera zarenak,  
 erakatsi baitiozkatzu.

## Esperantza aitormena

Zu baitan esperantza dut, Jauna.  
 Maite zaituzteneri  
     egiazko bizia hitzeman diozute.  
 Azkar zazu ene fidantzia,  
 Jesu Kristo zure Semeak herioa garaitu duelakotz,  
 oraidanik betiko bizia emaiten dautazula.

*edo*

**Ene Jainkoa, esperantza dut,  
sineste fermu batekin, emanen dautazula,  
Jesu Kristoren merezimenduen gatik,  
mundu huntan zure grazia,  
eta zure manamenduer jarraikitzen banaiz,  
bestean zure loria,  
zeren hitzeman baituzu,  
eta baitzare zure hitzetan osoki leiala.**

## **Maitasun aitormena**

**Maite zaitut, Jauna,  
zuk lehenik maitatu nauzulakotz.  
Zure Izpirituak ene baitan  
azkar dezala maitasuna,  
jende guziak maita ditzadan  
bururaino maitatu zituen  
Jesu Kristo zure Semeak bezala.**

*edo*

**Ene Jainkoa, maite zaitut,  
ene bihotz guziaz eta gauza guzien gainetik,  
zeren baitzare guziz ona eta osoki maitagarria ;  
maite dut halaber ene laguna ene burua bezala  
zure amorea gatik.**

## **Bekatuen urrikia**

**Aitortzen diot Jainko guziz ahaltsuari,  
eta zueri ere bai, ene haurrideri,  
bekatu egin dutala  
gogoeta, hitz eta egitez,  
eta egin beharrak ez eginez :  
bai, bekatore naiz.**

**Horrengatik eskatzen diotet  
Andredena Maria beti Birjinari,  
aingeru eta saindu guzieri,  
eta zueri ere bai, ene haurrideri,  
otoitz egin dezozuen ene alde  
Jainko gure Jaunari.**

## Urriki aitormena

Jauna, bekatu egin dut  
zure kontra eta ene anaien kontra,  
bainan zuk barkatzen duzu.  
Onar zazu ene urrikia,  
eta emadazu zure maitasunaren arabera  
bizitzeko indarra.

*edo*

Jainko gure Aita,  
maite gaituzu, eta beti barkatzen.  
Urriki dut gaizkia eginik :  
lagunt nezazu ene bihotzaren berritzen,  
eta zure haur bezala bizitzen.

*edo*

Ene Jainkoa,  
handizki damu dut zu ofentsaturik,  
zeren guziz ona zaren  
eta zeren bekatua hastio duzun.  
Barka zadazu  
Jesu Kristoren merezimenduen gatik.  
Hartzen dut xede zin bat,  
zure graziarekin batean,  
zu gehiago ez ofentsatzeko  
eta penitentzia egiteko.

# GOIZEKO OTOITZ

## Izpiritua bihotzen argia

Zato, Izpiritua,  
eta guri zerutik  
igor zure argia.

Zato, behartsuen aita,  
zato, dohain emailea,  
zato, bihotzen argia.

Kontsolatzaile hoberena,  
arimetan zaudena,  
minen eztitzailea.

Lan aldietan pausu,  
bero aldietan itzal,  
nigar aldietan gozo.

Oi argi dohatsua,  
fededun guzieri  
bete bihotz barnea.

Zure laguntza gabe  
deus ez da jendean,  
deus hoben gabe.

Garbi lohi dena,  
urezta idor dena,  
senda zauri dena.

Hunki gogor dagona,  
susta hotzik dagona,  
xuxent makur doana.

Zazpi dohain sailduak  
eman fededuneri,  
dena zuri daudeneri.

Eman merezimendu,  
eman salbamendu,  
eman betiko zorion.

Mendekosteko kantu

## Goizetik zure ondotik nabila

Jainko, ene Jainkoa,  
goizetik zure ondotik nabila,  
zure egarriz daukat arima,  
zure tirriaz gorputza,  
lur idor, egarri, urgabe iduria.  
Zuri begira egon naiz saindutegian,  
zure indarra eta ospea ikusi nahian.

Bizia baino hobea da zure maitasuna !  
ene ezpainez eginen dute zure gorespena.  
Bai, benedikatuko zaitut bizi naizeno,  
eskuak zuri dei eginez ditut altxatuko.  
Jakirik gozoenez bezala naiz aseko,  
ezpain alaiez ene ahoak zaitu goretsiko.

Zutaz oroitzen naiz ohe gainean,  
ene gogoa zuri dago gauean.  
Bai, zu ukan zaitut laguntzaile;  
pozez oihuka nago zure hegalen itzalean.  
Zuri lotua dago nere gogoa osorik,  
zure eskuak nauka xutik.



## **Bihotz ona da Jauna**

**Goretsiko zaitut, ene Jainko, ene errege,  
benedikatuko dut zure izena betiere.  
Benedikatuko zaitut egunoro,  
zure izena betiere gorai patuko.**

**Urrikalkorra eta bihozbera da Jauna,  
berant-hasarre eta ongi-nahi handikoa.  
Ona da Jauna guzientzat,  
samurra berak egin guzientzat.**

**Fidagarria da Jauna bere hitz guzietan,  
leiala bere egintza orotan.  
Erortzer direnak, Jaunak xutik atxikitzen ditu,  
lur-joak altxatzen.**

**Egin beza nere ahoak jaunaren gorespena  
eta benedikata bezate izaki guziek haren izen saindua  
beti eta beti !**

## Aintza Jaunari

Aintza zeruetan Jaungoikoari,  
eta bakea lurrean haren gogoko gizoneri.

Hain handi eta eder zaitugulakotz,  
gora zu, benedikatua zu.

Gorespen zuri, ahuspez agur, eskerrak zuri.  
Jaingo Jauna, zeruko errege.

Jaungoiko Aita guziahalduna.

Jauna, Seme bakar, Jesu Kristo.

Jaingo Jauna

Jaingoaren bildots, Aitaren Seme.

Zuk kentzen duzu munduko bekatua,  
urrikal, Jauna.

Zuk kentzen duzu munduko bekatua,  
entzun gure deia.

Aitaren eskuinaldean jarririk zaude zu,  
urrikal, Jauna.

Zu bakarrik saildua.

Zu bakarrik Jauna.

Zu bakarrik Goi-goikoa, Jesu Kristo.

Izpiritu Sainduarekin

Jaingo Aitaren argitan.

Amen.

## **Manamendurik handiena**

**Lege-gizon batek, hutsean atzeman nahiz,  
Jesusi galdegin zion :**

**“Irakasle Jauna, zoin da  
Legeko manamendurik handiena ?”  
Jesusek ihardetsi :**

**“Maitatuko duzu zure Jainko Jauna  
zure bihotz guziaz,  
zure arima guziaz  
eta zure gogo guziaz.**

**Horra manamendu handiena, lehena.**

**Eta bigarrena horren betekoa da :**

**Maitatuko duzu zure aldeko laguna  
zeure burua bezala.**

**Bi manamendu horietan dago lege guzia,  
bai eta profetak.”**

Ebanjelioa Jondoni Matiuren arabera 22, 37-40

*Hemen ixtan bat ixilik nago ikusteko nola bete deza-  
ketan gaur Jainkoaren manamendurik handiena.*

*Hunen partez beste irakurgai batzu ere har daitezke,  
ikus 65-72 rako orrialdeak.*

## Bake emaile

Egizu, Jauna, nitarik zure bakearen emailea :

Herra den lekuan  
     ezar dezadan maitasuna ;  
 laidoa den lekuan  
     ezar dezadan barkamendua ;  
 berexgoa den lekuan  
     ezar dezadan batasuna ;  
 gezurra den lekuan  
     ezar dezadan egia ;  
 duda den lekuan  
     ezar dezadan fedea ;  
 etsia den lekuan  
     ezar dezadan esperantza ;  
 ilunpea den lekuan  
     ezar dezadan argia ;  
 hisdura den lekuan  
     ezar dezadan bozkarioa.

Jauna, egizu bila dezadan lehenik  
 ez kontsolatua izaita, baizik kontsolatzea,  
 ez konprenditua izaita, baizik konprenditzea,  
 ez maitatua izaita, baizik maitatzea ;

emanez baitugu ukaiten,  
 guhaur ahantziz baitugu aurkitzen,  
 barkatuz baitugu barkamendu ardiesten,  
 hilez baigira betiereko bizirat pizten.

**Gure Aita...**

**Aita, gaur ere zuri buruz goazi :  
maitasunez gida gaitzazu bidean,  
zure Semea lagun  
eta Izpiritu Saindua indar,  
galdu gabe zutaraino hel gaitezen.**

*edo*

**Aita, zure Hitzari eta Izpirituaren indarrari  
zabal zazu gure bihotza.  
Emaguzu aski argi  
zure nahia nun den ikusteko,  
eta aski kar  
egun huntan haren betetzeko.**

*edo*

**Jainko betierekoa,  
zure maitasuna neurrigabea da.  
Guk merezitu eta gutiziatu baino gehiago  
betetzen dituzu gure galdeak.  
Ixur-azu gure gainerat zure urrikalmendua,  
gure bihotza kezkatzen duena kendurik,  
eman dezaukuzun  
eskatzerat ausartatzen ez girena.**

Aldareko liburutik

## Aingeru batek Mariari

**Aingeru batek Mariari  
dio : “Graziaz betea,  
Jaungoikoaren Semeari  
emanen diozu sortzea.”**

*Agur Maria...*

**“Jainkoaren nahi saildua  
ni baitan dadin egina !  
Izan nadien amatua,  
bainan geldituz birjina.”**

*Agur Maria...*

**Orduan Berbo dibinoa  
gorputz batez da beztitzen.  
Oi ontasun egiazkoa :  
Jauna gurekin egoiten !**

*Agur Maria...*

**Otoitz zazu zure Semea,  
gure ama amultsua ;  
izan dezagun fagorea  
ardiesteko zerua.**

*Agur Maria...*

# ARRATSEKO OTOITZ

## Argiaren egilea

Argiaren egilea,  
eguzkia duzu piztu  
argi berriz apaintzeko  
munduaren hastapena.

Goiz arratsen artekoa  
eguna deitu duzuna,  
gaua jausten ari baita,  
entzun dei eta nigarrak.

Hobenengatik arimak  
ez dezala gal bizia,  
gain hartakoak ahantziz  
eta gaizkirat lerratuz.

Entzun, Aita guziz ona,  
eta zuk, Jainko Semea,  
Izpirituarekin bat,  
Nausi menderen mendetan.

## **Jauna, zu zaitut aterbe**

**Goi-goikoaren gerizan dagonak,  
Guziahaldunaren itzalean bizi denak,  
Jaunari dio: «Ene aterbe eta gaztelu;  
ene Jainko, zutan ene fidantzia!»**

**Harek aterako zaitu ihiztariaren saretik  
eta izurri galgarritik.**

**Bere hegalez begiratuko zaitu,  
haren hegalperat ihes egingen duzu,  
haren leialtasuna geriza ukanen duzu.**

**Ez zaitu ikaratuko gaueko izialdurak,  
ez eta eguneko geziaren ziztuak,  
ez ilunpez dabilan izurriak,  
ez eta eguerdiko kutsu hilgarriak.**

**Error bite mila zure ondorat,  
hamar mila zure eskuinerat,  
zu deusek ez hunkiko.**

**Idek doi-doia begia  
eta ikusiko duzu gaixtoen saria,  
Jauna baita zure aterbea,  
Goi-goikoa zure leihorra.**



**Gaitzik ez zaizu gertatuko,  
ez makurrik zure egoitzarat hurbilduko,  
zutaz baitiote aingerueri manaturen  
zure bide guzietan zaindu zaitzaten.**

**Eremanen zaituzte beren eskuetan,  
zure oinak harri zenbait jo ez dezan.  
Lehoin eta sugearen gainean duzu oina finkatuko,  
lehoin kumea eta herensugea dituzu zangopilatuko.**

**«Eni baitago, libratuko dut,  
ene izena aitortzen baitu, begiratuko dut;  
dei eginen daut, eta nik ihardetsiko,  
berekin ukanen nau hersturaldiko.**

**Libratuko dut eta ohorez jantziko,  
bizitza luzez dut aseko  
eta neure salbamendua diot gozaraziko».**

## **Jauna, badakizu ene berri**

**Jauna, ikertzen nauzu eta ezagutzen:  
badakizu noiz naizen jartzen eta noiz jeikitzen,  
ene gogoetak urrundik dituzu zilatzen.**

**Ibil nadin ala etzan, ikusten nauzu,  
ene urrats guziak ezagunak dituzu.  
Hitza ez dut mihiaren gainean oraino  
eta jadanik, Jauna, badakizu oro.**

**Gibel eta aitzin inguratzen nauzu,  
eta eskua gainean ezartzen dautazu.  
Jakitate miresgarria, enetzat gehiegia,  
ni hartaraino heltzeko goregia.**

**Norat nindoake urrun zureganik?  
Norat ihes egin urrun zure aitzinetik?  
Zerurat igan banendi, han zaude, zu,  
Hilen Egoitzan etzan banendi, han ere, zu!**

**Goiz-argiaren hegalak hartu-ta,  
joan banendi itsas mugetaraino bizitzera:  
han ere zure eskuak nau gidatzen,  
zure eskuina zait lotzen.**

**Erraiten badut: «Ilunpeak estal nezala,  
egun-argia, nere inguruan, gau bilaka dadila!»,  
ilunpea bera ez da zuretzat ilunpe,  
eta gauak argitzen du egunaren pare.**

**Ene gorputza moldatu duzu,  
amaren sabelean eho nauzu.  
Gora zu, egin nauzulakotz hain harrigarri,  
zuk eginak hain dira miresgarri !  
Bai, badakit horren berri.**

**Nere hezurak ez ziren gordeak zure aitzinean,  
sortzen ari nintzelarik ixilean,  
moldatua nintzelarik lur barnean.**

**Nintzen umegaia, zure begiek ikusten ninduten,  
eta zure liburuan ene egun guziak idatzirik zauden,  
nahiz heietarik oraino bat ere ez zen.**

**Oi Jainko, iker nezazu eta ezagut ene bihotza,  
froga nezazu eta ezagut ene kezka.  
Ikus galbidetik ote nabilan,  
gida nezazu betirako bidean.**

## **Haurtxoa bezala**

**Jauna, ez dut harro bihotza,  
ez eta ozar begia.**

**Ez nabil xede handien ondotik,  
ez eta gauza miragarrien gibeletik.**

**Laño eta ixil daukat arima,  
amaren altzoan haurtxoa bezala,  
haurtxoa bezala daukat arima.**

**Israel, zure esperantza Jauna izan bedi  
orai eta beti !**

131. salmoa

**Naizen guzia  
zuri oihuz nago,  
oi, Jainko bizia.**

84. salmotik

## Nor den dohatsu

Jendetze handiak ikustean, Jesus mendirat  
igan zen eta heien irakasten hasi, erranez :

“Dohatsu bihotzez behartsuak,  
heiena baita Zeruetako Erresuma.  
Dohatsu eztiak,  
lur hitzemaña (1) ukanen baitute.  
Dohatsu nigarretan direnak,  
kontsolamendu izanen baitute.  
Dohatsu zuzentasun gose eta egarri direnak,  
asea ukanen baitute.  
Dohatsu urrikalkorrek,  
urrikalmendu ardietsiko baitute.  
Dohatsu bihotz garbiak,  
Jainkoa ikusiko baitute.  
Dohatsu baketiarrak,  
Jainko seme deituak izanen baitira.  
Dohatsu zuzentasunaren gatik gaizki erabiliak,  
heiena baita Zeruetako Erresuma.  
Dohatsu zuek, laidostatzen  
eta gaizki erabiltzen zaituztetenean,  
bai eta gezurka belzten, ene gatik.  
Bozkaria eta loria zaitezte,  
handia baituzue saria zeruetan.”

Ebanjelioa Jondoni Matiuren arabera 5, 3 -12

*Hunen partez, beste irakurgai batzu ere har daitezke,  
ikus 65-72 orrialdeetan.*

---

(1) Lur hitzemaña = Zeruetako Erresuma.

*Hemen ixtan bat ixilik nago, gogoan erabiliz Jainkoari gaur zertan huts egin diotan ; eta barkamendu eskatzen diot. Bainan ere eman dauzkitan grazia guziez eskertzen dut Andredena Mariaren kantu hau erranez :*

## **Mariaren bozkario kantua**

**Kantuz ari zait nere arima Jainkoari,  
haren goresle kantuz ari.**

**Haren loriaz bozkariotan dut gogoia :  
Salbatzaile dut nik Jainkoa.**

**Naizen neskato apal hau baitu hautatua,  
mendeek neri “Dohatsua !”**

**Zoin handi nitan Jainko Jaun guziz indartsua !  
Haren izena zoin saildua !**

**Urrikalmenduz betea dago mendez-mende,  
sinesten duten jenden alde.**

**Bere besoan duen indarraz Harek ditu  
bihotz hantuak barreiatu.**

**Beren alkitik handi-mandiak kendu ditu,  
apalak aldiz goraltxatu.**

**Gose zaudenak nasaiki ditu gozarazi,  
aseak aldiz hutsik utzi.**

**Behatu dio Israel bere jendeari,  
lehen bezala urrikari.**

**Erran baitzuen gintuela gu lagunduko  
Abrahamtarrak sekulako.**

## **Gure Aita...**

**Aita, gau huntan zuri otoitzez gaude :  
gure bihotzetaratz ixur-azu  
itzal ez daitekeen zure maitasunaren garra,  
eta sarraraz gaitzazu egun batez  
zure betiereko argian ;  
galdegiten dautzugu  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

*edo*

**Aita, maite zaituguneri,  
gure bekatu guzien gatik,  
zure bakea emaguzu :  
goxa ditzala gure bihotzak,  
deusek, ez biziak ez herioak  
ez baigaitu zure ganik berexten ahal ;  
galdegiten dautzugu  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

# AITARI OTOITZ

Bere dizipuluetarik batek Jesusi erran zion : “Jauna, erakuts-aguzu otoitz egiten...” Jesusek erran zioten : “Otoitz egitean errazue : Aita...”

Ebanjelioa San Luken arabera 11, 2

## Eskerrak zuri

**Aita, maite gaituzula erakutsi daukuzu** 1 Jn 4, 9  
**zure Semea mundurat igorritz,**  
**hartaz bizi gaitezen :**  
*Eskerrak zuri !*

**Aita, gutarik bakotxa maite duzu,** 1 Jn 3, 1  
**zure seme egiterainokoan :**  
*Eskerrak zuri !*

**Aita, gure bihotzetara** Ga 4, 6  
**zure Semearen Izpiritua igorri duzu,**  
**oihu egiten dauzuna : “Aita !”**  
*Eskerrak zuri !*

**Aita, ilunpeen boteretik libratu gaituzu** Kol 1, 13  
**eta zure Seme maitearen erresumarat aldaratu :**  
*Eskerrak zuri !*

**Aita, sailnduen ondoretasunean,** Kol 1, 12  
**argian parte hartzeko gai egin gaituzu :**  
*Eskerrak zuri !*



- Aita, maite gaituzu ;** 2 Ts 2, 16  
**betiereko kontsolamendu**  
**bai eta esperantza ederra**  
**graziaz eman daukuzu :**  
*Eskerrak zuri !*
- Aita, hori guzia zuhur** Mt 11, 25  
**eta jakintsuneri gorde duzu**  
**eta ttipieri agertu :**  
*Eskerrak zuri !*
- Aita, urrikalmenduen Aita,** 2 Kor 1, 3  
**eta kontsolamendu ororen Jainkoa,**  
**nahigabe guzietan kontsolatzen gaituzu :**  
*Eskerrak zuri !*
- Aita, zure Semea igorri duzu,** Jn 6, 40  
**hura ikusten duenak eta hartan sinesten**  
**betiereko bizia ukan dezan :**  
*Eskerrak zuri !*
- Aita, egiazko zerutikako ogia** Jn 6, 32  
**emaiten daukuzu :**  
*Eskerrak zuri !*
- Aita gure behar guzien berri badakizu :** Mt 6, 32  
*Eskerrak zuri !*
- Aita, zure ganik dauzkagu dohain guziak :** Jk 1, 17  
*Eskerrak zuri !*

## **Jaunak egin guziek, benedika Jauna**

“Kreazionea xifriturik igurika dago jainko semeak noiz agertuko diren.”

Jondoni Paulok Erromatarrerri gutuna 8, 19

*Mendian, itsasoan, edo berdin etxean, hego, elurte, edo gau izarratu batez Jainkoa gorets dezakegu egin duen eta egiten ari den izadi miragarriaz.*

**Jaunak egin guziek, benedika Jauna :**

*Hari aintza eta goresmen betiko !*

**Jaunaren aingeruek, benedika Jauna :**

*Hari aintza eta goresmen betiko !*

**Zeruek, benedika Jauna :**

*Hari aintza eta goresmen betiko !*

**Zeru gaineko ur guziek, benedika Jauna :**

*Hari aintza eta goresmen betiko !*

**Jaunaren indar guziek, benedika Jauna :**

*Hari aintza eta goresmen betiko !*

**Eguzki eta ilargi, benedika jauna :**

*Hari aintza eta goresmen betiko !*

**Zeruko izarrek, benedika Jauna :**

*Hari aintza eta goresmen betiko !*

**Euri eta ihintzek, benedika Jauna :**

*Hari aintza eta goresmen betiko !*

**Haize guziek, benedika Jauna :**

*Hari aintza eta goresmen betiko !*

**Su eta gar, benedika Jauna :**

*Hari aintza eta goresmen betiko !*

**Hotz eta bero, benedika Jauna :**

*Hari aintza eta goresmen betiko !*

**Ihintz eta izotz, benedika Jauna :**

*Hari aintza eta goresmen betiko*

**Karroin eta lantzurda, benedika Jauna :**

*Hari aintza eta goresmen betiko !*

**Horma eta elur, benedika Jauna :**

*Hari aintza eta goresmen betiko !*

**Gau eta egun, benedika Jauna :**

*Hari aintza eta goresmen betiko !*

**Argi eta ilun, benedika Jauna :**

*Hari aintza eta goresmen betiko !*

**Ximixta eta hedoi, benedika Jauna :**

*Hari aintza eta goresmen betiko !*

**Lurrak benedika beza Jauna :**

*Hari aintza eta goresmen betiko !*

**Mendi eta mendixka, benedika Jauna :**

*Hari aintza eta goresmen betiko !*

**Lurreko landare guziek, benedika Jauna :**

*Hari aintza eta goresmen betiko !*

**Iturriek, benedika Jauna :**

*Hari aintza eta goresmen betiko !*

**Itsaso eta ibaiek, benedika Jauna :**

*Hari aintza eta goresmen betiko !*

**Arrain handi eta urean bizi diren guziek,  
benedika Jauna :**

*Hari aintza eta goresmen betiko !*

**Abere eta basabere guziek, benedika Jauna :**

*Hari aintza eta goresmen betiko !*

**Gizonen semeek, benedika Jauna :**

*Hari aintza eta goresmen betiko !*

**Israel (Eliza), benedika Jauna :**

*Hari aintza eta goresmen betiko !*

**Jaunaren apezek, benedika Jauna :**

*Hari aintza eta goresmen betiko !*

**Jaunaren zerbitzariak, benedika Jauna :**

*Hari aintza eta goresmen betiko !*

**Gizon zuzenen izpiritu eta arimek, benedika Jauna :**

*Hari aintza eta goresmen betiko !*

**Saindu eta bihotz apalek, benedika Jauna :**

*Hari aintza eta goresmen betiko !*

Daniel 3, 57 - 86

## **Onartzen dut**

**Aita, ikusten ez dutalarik ere,  
konprenitzen ez dutalarik ere,  
senditzen ez dutalarik ere,  
sinesten dut gertatzen zaitan guziak  
azkar dezakeela zure alderateko ene amodioa.  
Emadazu, otoi, zure dohaina  
bihotz lañoaz onartzea.**

## **Pobreen anaidian har gaitzazu**

**Aita, bihotz erne, apal eta eztia emadazu,  
igortzen dauzkiguzun pobre guzieri  
ongi etorri egiteko.**

**Bihotz urrikalkorra emaguzu  
heien maitatzeko eta zerbitzatzeko,  
samurgo guzien ezeztatzeko,  
gure anaia sofrituen eta kraskatuen baitan  
Jesus bera bizitzen ikusteko.**

**Aita, zure pobreen eskuaz benedika gaitzazu,  
zure pobreen soaz irri egiguzu.**

**Aita, zure pobreen anaidi dohatsuan  
egun batez har gaitzazu.**

## **Ez zaitela gure kontra jar**

**Aita, ez zaitela jar  
gure bekatuekin gure kontra,  
baizik gurekin gure bekatuen kontra,  
zuri pentsatzean  
ez gaiten beti gure bekatuez orroit,  
baizik zure barkamenduaz,  
ez eta bidetik nola baztertu giren,  
baizik nola salbatu gaituzun.**

## Idek nezazu

Jauna, egizu neure burua onar dezadan  
 zuk onartzen nauzun bezala,  
 neure burua maita dezadan  
 zuk maite nauzun bezala.  
 Neure burua ona baino hobea egiteko nahikaritik  
 libra nezazu,  
 zuk eman nahi dautazun saindutasunari idek nezazu.  
 Niganik urrunt zazu Judasen bihotzeko harra,  
 bere baitan sartu baitzen handik ez ateratzeko,  
 egin zuen bekatuaz izitua eta esperantzagabetua.  
 Emadazu Petriren urrikia;  
 harek, samurtasunez eta urrikalmenduz beteriko  
 zure so ixila kurutzatu zuen.  
 Eta nigar egin behar badut, ez dadila izan nihaurtaz,  
 baizik zure maitasunari egin laidoez.  
 Jauna, esperantzagabeak jaten dautan bihotza  
 ezagutzen duzu.  
 Neure buruaren okazta  
 beti besteen gainera botatzen dut !  
 Zure samurtasunak norbait egin nezala neure begietan !  
 Hain nuke nahi zabaldu ene presondegiaren atea,  
 gakoa neure eskutan ukanki-ta !  
 Emadazu neure baitarik ateratzeko kuraia.  
 Erradazu fedea duenak edozer egin dezakela.  
 Erradazu senda naitekela  
 zure soaren eta hitzaren argitan.

San Agustin  
 (4°-5° m.)

## Zuri emaiten nitzazu

Zuri emaiten nitzazu,  
nahi duzuna egizu nitaz.  
Edozer egin dezazun nitaz  
eskerrak emaiten dauzkizut;  
denetara prest naiz,  
dena onartzen dut.

Nitan eta zure kreatura guzietan  
zure nahia egiten den ber  
ez dut beste gutziarik, ene Jainkoa.

Ene bizia zure eskuetan ezartzen dut.  
Emaiten dauzut, ene Jainkoa,  
bihotzeko amodio guziarekin,  
maite zaitudalakotz,  
ene amodioaren beharra delakotz  
neure buruaren emaita,  
neure burua zure eskuetan uztea  
neurrik gabe,  
fidantzia osoz,  
Aita baitzaitut.

Charles de Foucauld

*Maitatzea ez da maitatzen dela senditzean,  
baizik maitatzeko nahikarian.  
Oroz gainetik maitatu nahi delarik  
oroz gainetik maitatzen da.*

Ch. de F.

## Goresmen kanta

*(Aurrekuaren airean kanta daiteke)*

### Goresmen kanta

Aita, gure izate osoaren Ama,  
 garen guziaren eskaintzera gatozkizu.  
 Zeru eta lur, mendi eta oihan  
 zure ganik nasaiki ditugu biziaren dohain.  
 Goizeko iduzkiaren irri alaia miretsirik,  
 haize, euri eta argi, denak oparo zuk emanik,  
 zorionaren iturri baitzira zu,  
 eskerrak,  
 goresmenak,  
 benedikatzen zaitugu.  
 Guzien nigar, lan, oihu, poz, atseginak zure esku.  
 “Egin bake”, “elgar lagun”, maitasuna da zure manu.  
 Gutarik bakoitza zinez maite duzu.  
 Eskerrak,  
 goresmenak,  
 benedikatzen zaitugu.

Graxi Solorzano

Jauna, gure sustatzailea,  
 egizu maita dezagun zuk manatua  
 eta igurika zuk hitzeman,  
 mundu aldakor huntan  
 gure bihotzek sendo iraun dezaten  
 behartsuen eta zure zerbitzuan.



## **Enbaldiaren salmoa**

**Jainkoari galdegin diot indarra, arrakasta ukaiteko;  
eta indargabe egin nau, obeditzen ikasteko.**

**Osagarria galdegin diot, gauza handien egiteko;  
eta enbaldi egin nau, gauza bobek egiteko.**

**Aberastasuna galdegin diot, zorionsu izaiteko;  
eta pobre egin nau, zuhur izaiteko.**

**Boterea galdegin diot, jendeen estimua irabazteko;  
eta ahul egin nau, Jainkoaren beharra senditzeko.**

**Lagun bat galdegin diot, bakarrik ez bizitzeko;  
eta bihotza eman daut, haurride guziak maitatzeko.**

**Gauza guziak galdegin diozkat, biziak gozatzeko;  
eta biziak ukan dut, gauza guzietaz gozatzeko.**

**Galdegin nuenetik deus ez dut ukan;  
bainan espero nuen guzia eman zait.**

**Nihaurek ez nahian bezala,  
egin ez ditudan otoitzak entzunak izan dira.**

**Beste guziak baino gehiago,  
ontasunez bete-betea naiz.**

## **Behar-ordu guzientzat**

*(bakarrik edo taldean)*

**Jaunko urrikalkor eta bihozbera,  
zure otoizteko garbi zazu gure bihotza,  
libra gaitzazu gure bekatuetarik,  
entzun gure otoitza.**

**Jauna, gizaki guzien Aita,  
otoizten zaitugu lurreko gure haurride guzientzat,  
eta lehenik otoitz egiten ez dutenentzat.  
Erakutsaguzu zure dirdira  
denak argi gaitzan barne-barneraino.**

**Jauna, otoizten zaitugu gure haurride behartsuentzat,  
dirurik edo eskolarik ez dutenentzat,  
samurtasunik ez dutenentzat.  
Idek gure begiak heien beharrerri,  
heien etsimendu eta hasarreari.  
Erakutsaguzu heiekin partekatzen.**

**Oroit zaite, Jauna, langabeetaz,  
lana bilatzen duten gazteetaz,  
oroit zaite mehatxatuak direnetaz  
edo ihardokitzen ahal ez dutenetaz.  
Erakar gaitzazu heien laguntzera,  
gure gizartean beren lekua aurki dezaten.**

Otoizten zaitugu, Jauna, erientzat,  
 beti sofritzen ari direnentzat,  
 sendatzeko esperantza galdua dutenentzat,  
 heriotzea hurbil dutenentzat.  
 Susta, bihotz-altxa, kontsolazkitzu,  
 emozute pazientzia eta bakea.

Oroit zaite, Jauna, gerletako hiletaz,  
 han eta hemen pizten diren gataska armatuetaz.  
 Apal zazu nazioeen urgulua,  
 salba lehertuak, altxa eroriak,  
 emaguzu bakea.

Oroit zaite, Jauna, beren familiatik urrun direnetaz,  
 presuner, bahi, iheslari, atzerriratu,  
 pertsegitu eta torturatuetaz :  
 denak beren etxean sar ditela.

Jauna, ezinezkoaren nagusia, otoizten zaitugu  
 beste girixtinoekin batasuna egin dezagun,  
 eta bakea erlisione guziekin.  
 Urrikal zaite gure berexkuntzetaz  
 eta elgarretara gaitzazu zeure amodioan.

Otoizten zaitugu, Jauna, gure Elizarentzat,  
 militanteentzat eta otoizlariarentzat,  
 fraide, misionest eta serorentzat,  
 apez eta apezpikuentzat, aita sainduarentzat.  
 Zeure Elizari emozu bizi eta garbi izaitea,  
 pobre eta zerbitzari;  
 begira gaitzazu fidelitasunean. Amen.

## **Ixilik zaudenean**

**Aita, ez gaitzazula sekula utz ahanztera  
mintzo zirela, ixilik zaudenean ere.**

**Emaguzu fidantzia hori,  
zure beha gaudenean,  
amodioz ixiltzen zirela  
eta amodioz mintzatzen.**

**Ixilik egon edo mintza zaiten,  
beti Aita bera zira,  
aita bihotz bera duzu,  
gida gaitzazun mintzatuz  
ala hez gaitzazun ixilduz.**

Kierkegaard

# SEMEAREN BITARTEZ OTOITZ

“Ene Jainkoari eskerrak emaiten diozkat Jesu kristoren bitartez.”

Jondoni Paulok Erromatarrerri gutuna 1, 8

## Gizonen adiskide

**Jesus gizonen adiskidea, *aintza zuri !***

**Jesus urrikalkorra, *aintza zuri !***

**Jesus jasankorra, *aintza zuri !***

**Jesus barkakorra, *aintza zuri !***

**Jesus Birjina ganik sortua, *aintza zuri !***

**Jesus estekatua, *aintza zuri !***

**Jesus azotatua, *aintza zuri !***

**Jesus eskarniatua, *aintza zuri !***

**Jesus kurutzeratua, *aintza zuri !***

**Jesus hobiratua, *aintza zuri !***

**Jesus piztua, *aintza zuri !***

**Jesus zerurat igana, *aintza zuri !***

**Jesus Aitaren eskuinaldean jarria, *aintza zuri !***

**Zure kurutzea gutietsi dutenen jujatzerat  
etorriko zirenean,**

**har nezazu, otoi, zure eskuaren aterbean,**

**beti gorets zaitzadan,**

**oi bekatoreen eroslea !**

S. Efrem

## Amodioa bakarrik

Fede haundiko burrasoen ganik sortu bainintzan mundura,  
Jainko legean hezi ninduten jitean adimendura ;  
hain zen beroa denbor'hartako eliz gizonen kar hura,  
ziotelarik gaizki eginak zeramala ifernura,  
muinetaraino sartu zitzaitan Jaungoikoaren beldurra...

Legeak zuen erakaspena hausten nuen guzietan,  
okaztagarri aurkitzen nintzan Jainkoaren begietan,  
nitaz betikotz etsi zuela iduritzen baitzitzautan ;  
desgustaturik damuz betea egon izan naiz bortzetan,  
ez sorturikan Jainkoaz deus ez dakiten tokietan.

Orduko apez suhar zintzoek halako arak zituzten,  
etzen maitasun gozo haundirik heien ahotik ixurtzen ;  
heiek Jaunari eman itxurak ari ninduen itsutzen,  
zeruko edertasunak berak hotz hotza ninduen uzten,  
gaztiguaren labe gorria baizik ez nuen ikusten.

Orai ez dakit, Jauna, Zu edo ni aldatu ote naizen,  
etzira egun ene gogoan lengo itxuraz agertzen ;  
gertatzen denaz, o Nagusia, kartsuki zaitut eskertzen,  
gure arteko hoztasun hartaz hasia nintzan aspertzen,  
Jainko maitea, ordu zen noizbait lagunak egin gintezen.

Zure laguna eginez geroz enetzat ez da nekerik,  
zure behako samurrak eman nau fidantziaz beterik ;  
deusen galderik ez dautzut bada egiten ene baitarik,  
ez gaztigua urrun dezazun, ez eta sari eskerik ;  
gaurkotz ez dauzut deusik eskatzen, amodioaz besterik.

Nehoz bakerik goza gabeko ene gogo bihurria,  
bihotzak edan duen ur onak hil du zure egarria,  
ur on guzien Jabeak berak emanikan negurria ;  
horra egi bat amodioak gure bixtan ezarria :  
Haren oinetan sortzen zaukula bakearen iturria.

## “Jesusen otoitza”

*Amodioaren mail gorenerat heltzeko, geldigabe otoitz egin behar da, Jesusek gomendatu bezala. Eta hola otoitz egiteko “Jesusen otoitza” baliosenatarik da, noiz-nahi, nun-nahi erran daitekeena, hatsartzen den bezala, eta berdin hatsaren urratsean.*

**Jesus Jauna, Jainkoaren Semea,  
urrikal zaite nitaz.**

## Gosetuko naizenean

**Jauna, gosetuko naizenean  
emadazu norbait jatera eman diezotan.**

**Egarrituko naizenean  
emadazu norbait edatera eman diezotan.**

**Hoztuko naizenean  
emadazu norbait bero dezatan.**

**Ereriko naizenean  
emadazu norbait altxa dezatan.**

**Bihotz-goxotasunez behartuko naizenean  
emadazu norbait**

**neure bihotz-goxotasuna eskain diezotan.**

Ama Teresa

## **Bihozdun egin nezazu**

**Jesus Jauna, erakuts ezadazu bihozdun izaiten,  
hartze duzun bezala zerbitzatzen,  
karkulan ari gabe gogotik emaiten,  
min-har beldur gabe azkar gudukatzen,  
pausurik bilatu gabe beti lan egiten  
eta zure nahia betetzen dutala jakiteaz  
    beste saririk igurikatu gabe  
    neure buruaren emaiten.**

Loiolako Iñigo saindua

## **Saindu nezazu**

**Kristoren arima, saindu nezazu.  
Kristoren gorputza, salba nezazu.  
Kristoren odola, bero nezazu.  
Kristoren sahetseko ura, garbi nezazu.  
Kristoren pasionea, azkar nezazu.  
Oi ene Jesus ona, entzun nezazu.  
Zure zaurietan, gorde nezazu.  
Zure ganik urruntzera, utz ez nezazu.  
Etsai gaixtotik, begira nezazu,  
zure sainduekin batean gorets zaitzadan  
    menderen mendetan.**

Loiolako Iñigo saindua



## Halere sinesten dut

**Jauna,**  
**biharamuneko ogia beti eman dautazu,**  
**eta pobrea izanik ere, *gaur sinesten dut.***

**Biharamuneko indarra beti eman dautazu,**  
**eta ahula izanik ere, *gaur sinesten dut.***

**Biharamuneko bakea beti eman dautazu,**  
**eta kezkatua izanik ere, *gaur sinesten dut.***

**Biharamuneko bidea beti erakutsi dautazu,**  
**eta gordea bada ere, *gaur sinesten dut.***

**Ateka gaixtoetan beti begiratu nauzu,**  
**eta ateka gaixtoan izanik ere, *gaur sinesten dut.***

**Ilunpean beti argitu nauzu,**  
**eta ilunpean izanik ere, *gaur sinesten dut.***

**Behar-orduan beti mintzatu zitzaizkit,**  
**eta nahiz ixilik zauden, *gaur sinesten dut.***

**Beti lagun leiala izan zira,**  
**eta saltzen zaituztenen gatik, *gaur sinesten dut.***

**Hitza egundaino ez duzu jan,**  
**eta dudatzen dutenen gatik, *gaur sinesten dut.***

## **IZPIRITU SAINDUA BAITAN OTOITZ**

“Izpiritua gure ahuleziaren laguntzera datorkigu, ez baitakigu zer eska behar bezala. Bainan Izpiritua bera gure alde mintzo da ezin erranezko auhenetan.”

Jondoni Paulok Erromatarrerri gutuna 8, 26

### **Kontsolatzailea deitzen zira**

**Zato, Izpiritu Saindua,  
jauts zureen barnera :  
bete zeruko graziaz  
zuhauk moldatu bihotzak.**

**Kontsolatzailea deitzen zira,  
Jaungoikoaren emaitza,  
iturri, su, maitasun,  
arimen oliodura.**

**Gure gogoan pitz argi,  
bihotzetan amodio,  
gure gorputzen ezinak  
azkar betiko indarraz.**

**Gu ganik urrunt etsaia,  
laster emazu bakea,  
joan gaiten zu aitzindari,  
nausituz gaitz guzieri.**

**Aintza Jainko aitari,  
piztu den semeari,  
bai eta Izpiritu Sainduari  
menderen mendetan. Amen.**

Veni, Sancte Spiritus

## Behartsuen esperantza

**Izpiritu Saindua,**  
**sofritzen dutenen kontsolatzailea, zato !**  
**Zaurien sendatzailea, zato !**  
**Ahulen indarra, zato !**  
**Erortzera doatzinen zurkaitza, zato !**  
**Apalen begiralea, zato !**  
**Urgulutsuen garailea, zato !**  
**Umezurtzen aita, zato !**  
**Behartsuen esperantza, zato !**  
**Itsas gizonen izarra, zato !**  
**Hondatuen portua, zato !**  
**Bizidun guzien egiazko aintza, zato !**  
**Izpiritu oroz gaisetik saindua, zato !**

Jean de Fécamp

**Zu ganik den Izpirituak argi bitza, Jauna,**  
**gure gogo-bihotzak ;**  
**eta zure Semeak hitzeman bezala,**  
**argiaren beterat ereman gaitzala.**

Aldareko Liburutik

## Izpiritu kreatzailea

Uren gainean zinabiltzan hastapenetako Izpiritua, *zato !*  
 Adamen baitarat ufatu Izpiritu bizi-emailea, *zato !*  
 Abraham, Isaak eta Jakob gidatzen zinituen Izpiritua, *zato !*  
 Profeten ahoz mintzo zinen Izpiritua, *zato !*  
 Kontseilu eta indar emaiten duzun Izpiritua, *zato !*  
 Jainkoaren errespetua emaiten duzun Izpiritua, *zato !*  
 Zuzentasuna eta maitasuna emaiten dituzun Izpiritua, *zato !*  
 Urrikalmendu eta egia ziren Izpiritua, *zato !*  
 Hodeiak bezala Maria estali zinuen Izpiritua, *zato !*  
 Bataioan Jesusen gainean finkatu zinen Izpiritua, *zato !*  
 Jesus basamorturat ereman zinuen Izpiritua, *zato !*  
 Zutaz Jesusek debruak haizatzen zituen Izpiritua, *zato !*  
 Pasionean Jesus lagundu zinuen Izpiritua, *zato !*  
 Jesus hirugarren egunean piztu zinuen Izpiritua, *zato !*  
 Mariaren eta Apostoluen gainera jautsi zinen Izpiritua, *zato !*  
 Gure hatsa eta bizia ziren Izpiritua, *zato !*  
 Jainkoa “Aita” deitzea emaiten daukuzun Izpiritua, *zato !*  
 Jesus “Jauna” dela aitortzea emaiten daukuzun Izpiritua, *zato !*  
 Gure ahuleziaren laguntzera heldu ziren Izpiritua, *zato !*  
 Gure gorputz hilkorreri bizia emanen diozuten Izpiritua, *zato !*  
 Aitarekin eta Semearekin Jainko ziren Izpiritua, *zato !*

## **Beharrik ez dut ideiarik...**

**Jauna, beharrik ez dut ideiarik...**

**beharrik ez dakit zer erran !**

**Zu entzuten egonen naiz, azkenean !**

**Ene pobretasunaren ixilean  
mintza zaite, Jauna.**

**Ene izpiritu hutsa izan dadila zure egoitza.**

**Beharrik ez dut ideiarik,**

**zureak hobeki entzuteko, Jauna.**

**Beharrik ez dakit deuseren erraiten !**

**Ixiltasunean, geldi-geldia,**

**zuri so egonen naiz, Jauna.**

## **Norenganat joan ?**

**Jauna, norenganat joan gintezke ?**

**Zuk dituzu**

**betiereko bizia emaiten duten hitzak.**

# ANDREDENA MARIAREKIN OTOITZ

“Denak bihotz bat, jarraikiak ziren otoitzari, emazte zenbaitekin, hala nola Maria Jesusen amarekin.”

Apostoluen Eginak 1, 14

**Zure gerizaren aterbera goazi,  
Jainkoaren ama saindua,  
gure behar-orduetan  
ez arbuia gure otoitzak,  
bainan erorbide guzietarik  
begira gaitzazu beti,  
Birjina ospetsu eta benedikatua.**

Sub tuum praesidium

**Agur, Maria, ama guziz eztia,  
gure bizia, gozo eta argia.  
Entzun oihuka lurtiar dohakabeak,  
entzun hasgoraka,  
auhenez ta minez,  
nigar toki huntakoak.  
Ea, otoi, gure beiralea,  
zure begi hain urrikariz beteak  
beude guri beha.  
Eta Jesus, zoragarri zure Seme hura  
guri lur huntarik lekora erakuts.  
Oi ama ona, oi ama eztia,  
Oi Maria, ama goxoa.**

Salve Regina

## Mariari loreak

**Maria saindua, *otoitz egizu guretzat.***

**Jainkoaren ama saindua, *otoitz egizu guretzat.***

**Kristoren ama,**

**Jainko graziaren ama,**

**Ama beti birjina,**

**Ama maitagarria,**

**Kontseilu oneko ama,**

**Salbatzailearen ama,**

**Gure bozkarioaren sorgia,**

**Izpirituaren egoitza,**

**Zeruko atea,**

**Goizeko izarra,**

**Erien osagarria,**

**Bekatorosen iheslekua,**

**Atsegabetuen altxatzailea,**

**Girixtinoen laguntza,**

**Bakearen erregina.**

**Jainko Jauna, zure zerbitzarieri emozute, otoi,  
arimako eta gorputzeko osagarria :**

**Birjina Maria dohatsuari esker,**

**hemengo hersturak garaiturik,**

**betiko zoriona goza dezaten**

**Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

# DEI LABURRAK

*Noiz-nahi eta nun-nahi erran daitezke, bihotza Jainkoari altxatuz. Lehen hauk Jesusi oihu eginak izan ziren, gure bideetan zabilalarik.*

**Jauna, salba nezazu !** Mt 14, 30

**Jauna, Daviden semea,  
urrikal zaite nitaz !** Mt 15, 22

**Jauna, lagunt nezazu !** Mt 15, 25

**Jauna, nahi baduzu, sendatzen ahal nauzu !** Lk 5, 12

**Jauna, erakuts-aguzu otoitz egiten !** Lk 11, 1

**Jauna, emenda zazu fedea gure baitan !** Lk 17, 5

**Sinesten dut, Jauna,  
ene fede eskasa lagunt zazu !** Mk 9, 24

**Jauna, sinesten dut  
zu zirela Kristo, Jainkoaren Semea !** Jn 11, 27



- Ene Jauna eta ene Jainkoa !** Jn 20, 28
- Jauna, badakizu maite zaitudala !** Jn 21, 15
- Jainko ene Jainkoa,  
goizetik zure ondotik nabila !** 62. salmoa
- Ene Jauna zira ;  
ez dut onik zu gabe.** 15. sal
- Zure eskuetan uzten dut ene izpiritua ;  
zuk libratuko nauzu, Jauna.** 30. sal
- Jauna, ikusten nauzu,  
ez egon ixilik ;  
ene Jainkoa, ez urrunt ene ganik !** 34. sal
- Ene harroka eta ene harresia zu zira !** 30. sal
- Ene Jaun eta Jainko,  
eskerrak zuri betiko !** 29. sal
- Zure begitartearen bila nabil, Jauna,  
ez otoi eni gorde zure begitartea !** 26. sal
- Orkatzak udan iturrirako zer lehia !  
Zu gana, Jauna, nik ere dudan egarria !** 41. sal
- Zu, Jauna, zu bakarrik !** 86. sal
- Zutaz besterik nor dut zeruan ?  
Zutaz beste gutiziarik ez dut lurrean !** 72. sal

## Elizarentzat

**Jainko Jauna,  
Eliza osoa saindu egiten duzu  
herrialde guzien artean :  
ixur, otoi, mundu zabalean  
zure Izpirituaren dohainak,  
zure bihotz onak Ebanjelioaren hastapenean  
egin zuena  
orai ere eman eta zabal dezan  
fededunen bihotzen bidez.**

## Fedea zabal dadin

**Jainko Jauna,  
zure Semea igorri duzu mundurat egiazko argi :  
ixur, otoi, hitzeman duzun Izpiritua,  
gizonen bihotzetan egiaren hazia erein-eta  
fedearen aitormena sortaraz dezan.  
Hola bataioaren bidez bizi berrirat sorturik,  
denek ardietsiko dute zure herri  
bakarrean sartzea.**

## **Eukaldunentzat**

### **Jende guzientzat**

**Jaun Zerukoa, otoitzez gaude konfidentzia betean :  
amodioa pitzaraz-azu gure sort-herri maitean,  
zure lekuko agertuz beti, bizi gaitezen bakean,  
batek bertzea errespetatuz, batasun sendo batean.**

**Eta ogia sortaraz-azu gosea dagon lekuan,  
gure gidari daudenak aldiz lagundu beren karguan,  
izan dezaten bihotz bat eta argi bizi bat buruan,  
egia eta zuzentasuna heda ditezen munduan.**

**Egizu, otoi, libertatea nehork ez dezan kondena,  
eta ez ahantz hobenik gabe estekan eman dutena,  
zuhauren edo herria gatik pairatzen ari duena,  
mundu guzian errespetatu dezan gizonak gizona.**

**Bada hoinbertze sofrikario eta hoinbertze behartsu,  
zure eskua izan dadila denen alderat indartsu ;  
mundu huntako behar-orduen berri ongi baitakizu,  
komeni bada, solegi diten, Jainkoa, zerbait egizu !**

Xalbador pertsularia

## Familiarentzat

Jainko Jauna, familiak zu baitan du  
 bere oinarri sendoa :  
 egizu gure familia izan dadin  
 zure Semeari eman zinionaren idurikoa.  
 Emaguzu elgarrekin maitasunean bizitzea,  
 gure lurreko pidaian Izpirituak sustaturik,  
 egun batez denak zure argiaren beterat  
 hel gaitzen.

## Haurrentzat

Jauna, zuk eman dauzkiguzun haurrak  
 zure haur ere egin dituzu bataioaz :  
 emozute, otoi, gorputzeko eta arimako osagarria,  
 beren bihotz guziaz maita zaitzaten  
 eta beren indar guziez zure nahia egin dezaten.

## Edozoin behar-ordutan

Jainko guziahaldun eta urrikalkorra,  
 bihotz onez ikus  
 ezinbestean gauden zure haurrak :  
 arin zazu gure nekea, azkar gure fedea,  
 zure aita-bihotz onean  
 beti fidantzia osoa izan dezagun.

## **Lanaren galdegiteko**

**Jauna, lanaren bidez jendea jendeagotzen duzu,  
eta jendeen bidez ari zira**

**zuhaurek egin gauza miresgarrien edertzen :  
egizu, otoi, denek izan dezaten behar duten lana,  
hari esker ohoreki biziz  
batzu besteen zerbitzari jar daitezten.**

## **Eguneko lan eta ekintzen eskaintzeko**

**Jauna, gauza guzien hastapena eta azkena,  
zure Izpirituak aitzint eta lagunt ditzala**

**gaurko ene urratsak,  
zurekin hasi lan eta ekintzak  
zurekin burura ditzadan.**

Aldareko Liburutik

## Zapalduentzat

Jauna, zure seme-alaba guziak maite dituzu :  
 begi onez ikus ihes egin dutenak,  
 desterratuak, langile arrotzak,  
 presunerrak, torturatuak,  
 bazterrerat utzi eta zapaldu guziak ;  
 bihozberri nezazu  
 ene haurride horiek onets eta lagunt ditzadan  
 merezi duten eta nahi duzun bezala.

## Erientzat

Argia apaldua da, zaude gurekin, Jauna.  
 Lorik egiten ez duena beila zazu :  
     Zu zira argia.  
 Sofritzen duena bakean finka zazu :  
     Zu zira bakea.  
 Ezin jasana duena goxa eta azkar zazu :  
 Zu zira goxoa eta indarra.  
 Bakarrik dagona maiteki susta zazu :  
     Zu zira Maitasuna.  
 Lo dagona begira zazu :  
     Zu zira Esperantza.  
 Zaude gurekin, Jauna :  
     Zu zira Bizia.

## Eriak beretzat

Jesus Jauna, nekez otoitz egiten dut :  
 gaitzak eta nahigabeek lehertzen naute.  
 Bainan zuk ere kurutzean sofritu duzu.  
 Zaude enekin.  
 Zure gain har-azu ene ezina.  
 Zure Izpirituak ekar dezadala argi eta indar.  
 Badut fidantzia zurekin sofriturik  
 zurekin ere biziko naizela bozkarioan betikotz.  
 Zu, ene Salbatzailea, ene bizia, ene guzia,  
 Jesus Jauna.

## Hilentzat

Orroit zaitte, Jauna, gure etxeko hilez  
 eta mundu huntarik zurekin adiskide  
     joan diren guziez :  
 harzkitzu bihotz onez zure zeruan.  
 Sinesten dut zure aintzaren zorion betea  
 nik ere izanen dutala betikotz heiekin batean,  
 gure begietarik nigar guziak  
 xukatuko dituzunean.  
 Orduan zu, Jauna, ziren bezala ikusiko zaitugu,  
 eta zure iduriko izanen gira,  
 zure goresle, betiko.

## Jan aitzin

**Benedikatua zu, Jauna :  
bizidun guziera jatekoa emaiten diozute ;  
zabal zazu gure bihotza zure goresteko,  
zabal gure eskua zuek emanetik  
beharduneri emaiteko. Amen.**

## Jan ondoan

**Eskerrak zuri, Jauna,  
elgarretara bildu gaituen apairu hunengatik ;  
eta jendea ez baita bakarrik ogiz bizi,  
emaguzu zure alderako gose eta egarria. Amen.**



# JAUNAREN HITZA

*Goizeko eta arratseko otoitzean sar daitezkeen irakurgai zenbait :*

## **Jesus nor den**

**Ni naiz munduaren argia ;  
jarraitzen zaitana ez dabil ilunpetan,  
bainan ukanen du biziaren argia.**

Ebanjelioa Jondoni Joaniren arabera 8, 12

**Ni naiz Bidea, Egia eta Bizia ;  
nehor ez doa Aitaren ganat ene bidez baizik.** 14, 6

## **Betiko bizia fedean**

**Semea baitan sinesten duenak, badu betiko bizia.  
Semea baitan sinetsi nahi ez duenak,  
ez du ikusiko bizia,  
bainan Jainkoaren haserrea ganean dauka.** 3, 36

**Ikusi nauzulakotz duzu sinesten, Tomas ;  
dohatsu ikusi gabe sinesten dutenak !** 20, 29

## Ez ontasun biltzen ar

Ez zazula aberastasunik metaka bil lurrean, hemen bipiek eta harrek jaten baitituzte, eta ohoinek, etxeak zilatu-eta, ebasten. Aberastasunak bil zeruan, han ez baitituzte ez bipiek ez harrek jaten, ez eta ere ohoinek ebasten. Zeren nun baita zure ontasuna, han ere zure bihotza.

Ebanjelioa Jondoni Matiuren arabera 6, 19-21

## Jesusi nola jarraik

Jesusek bere dizipulueri erran zioten : “Norbaitek ene ondotik etorri nahi badu, uko egin bezo bere buruari, har beza bere kurutzea eta jarraik bekit . Alabainan bere burua salbatu nahi duenak galduko du ; eta ni gatik bere burua galtzen duenak aurkituko du. Zer balia dakiok gizonari, mundu guzia irabazirik ere, bere burua hondatzen badu ?” 16, 24 - 26

## Aldeko lagunaren maitatzea Legearen betea

Besteek zueri egitea nahi zinuketen guzia, egizue zihaurek besteeri : hortan da Liburu Sainduak irakatsi guzia.

7, 12

Ez nehoi zordun izan, elgar maitatzeaz baizik, laguna maite duenak Legea betea baitu. Zeren manamendu hauk : *ezkontza ez kolpa, ez hil, ez ebats, ez gutizia, eta beste edozoin manamendu, hitz huntan biltzen dira* : Zure laguna zeure burua beza-la maitatuko duzu. Maitasunak ez dio lagunari gairik gaiten ; beraz Legearen betea maitasuna da.

Jondoni Paulok Erromatarrerri 13, 8-10

Gizonen eta aingeruen hizkuntzetan mintzaturik  
 ere maitasunik ez badut,  
 brontze dulundaria edo zinbal burrunbaria naiz.  
 Profeta dohaina,  
 mixterio guzien ezagutza, jakitate guzia  
 bai eta mendiak aldaratzerainoko  
     fede guzia ukanik ere  
 maitasunik ez badut,  
 deusik ez naiz.  
 Ene ontasun guziak jatera partekaturik ere,  
 neure gorputza surat emanik ere  
 maitasunik ez badut,  
 hori deusetako ez dut.

Maitasuna jasankorra da, bihozbera da maitasuna,  
 ez da bekaizti, ez ahobero, ez urguluntzi ;  
 onesta ez denik ez du egiten, ez berea bilatzen ;  
 ez da sumintzen, ez du gaizki hartzen ;  
 zuzengabekeriak ez du bozkariatzen,  
 baizik egian dauka bere bozkarioa ;  
 oro estaltzen ditu, oro sinesten,  
 oro igurikatzen, oro irauten.

Maitasuna ez da sekulan itzaltzen.  
 Profeziak ? Ezeztatuko dira.  
 Hizkuntzak ? ixilduko.  
 Jakitatea ? ezeztatuko.  
 Hein batekoa baita gure jakitatea,  
 hein batekoa gure profezia.  
 Osoa etorriko denean  
 hein batekoa ezeztatuko da.

**Haurra nintzenean,  
 haur eleak nituen, haur asmoak, haur arrazoinak.  
 Gizondu naizenean, haurkeriak ezeztatu ditut.  
 Orai mirail batean ikusten dugu,  
 ilun nabar batean ;  
 orduan aldiz, ezagutua naizen bezala  
     ezagutuko dut.  
 Orai fedea, esperantza eta maitasuna,  
 hiru horiek diraute ;  
 bainan handiena maitasuna.**

Jondoni Paulok I Korintoareri 13

## **Zertarik jujatuak izanen giren**

Etorriko denean gizonaren Semea bere ospean, eta aingeru guziak harekin, orduan jarriko da bere ospezko alkian. Gizalde guziak bilduko dira haren aitzinerat ; eta batzu bertzetarik berexiko ditu, artzainak ardiak ahuntzetarik berexten dituen bezala : ardiak emanen ditu bere eskuinean, ahuntzak aldiz, ezkerrean. Orduan erregeak erranen diote bere eskuinekoeri : “Zatozte nere Aitaren benedikatuak, eta har zazue munduaren sortzetik zuentzat apailatua dagon erreinua. Ezen, gose izan naiz, eta eman dautazue jatera ; egarri eta edatera eman ; arrotz eta etxerat hartu nauzue ; biluzia eta beztitu ; eri, eta ikusten izan zaizkitet ; preso, eta jin zirezte nigana.” Orduan ihardetsiko diote justuek, erranez : “Jauna, noiz ote ikusi zaitugu gose eta jatera eman ? Egarri, eta edatera eman ? Noiz ikusi arrotz, eta etxerat

hartu ? Biluzia eta beztitu ? Noiz ikusi zaitugu eri edo preso, eta jin ikustera ?” Eta erregeak ihardetsiko diote : “Egiaz derautzuet : ene haurrideak diren xumeen horietarik bati egin duzuen aldi guziz, eni dautazue egin.”

Ebanjelioa Jondoni Matiuren arabera 25, 31-46

## Etsaiak maita

Jesusek erran zuen : “Maita zuen etsaiak, egin otoitz zuen gaizki-egile eta gaizki-erraileentzat, zeruetan dagon zuen Aitaren seme izaiteko. Harek bere eguzkia jeiki arazten du on ala gaixtoen gainerat, eta bere euria jauts arazten zuzenen ala makurren gainerat. Maite zaituztetenak maite balinbadituzue, zer sari zor zaizue... Paganoeak ere ez ote dute bertze honbertze egiten ?”

Ebanjelioa Jondoni Matiuren arabera 5, 43-47

## Jainkoa ttipieri agertzen

Izpiritu Saindua baitan pozez bete zen Jesus, eta hunela mintzatu : “Gora zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauk jakintsuneri eta zentzuduneri gorderik, haur ttipieri agertu diozkatzutelakotz. Bai, Aita, hola nahi izan duzu. Nere eskuetan ezarri ditu Aitak gauza guziak ; eta nehork ez daki nor den Semea, Aitak baizik ; nehork ez daki nor den Aita, Semeak baizik, eta Semeak agertu nahi dionak.”

Ebanjelioa San Luken arabera 10, 21-22

## Jainkoa aita urrikalkorra da

Jesusek erran zuen : “Gizon batek bazituen bi seme. Gazteenak erran zion aitari : “Aita, emadazu ene etxe-partea.” Eta aitak partimenak egin ziozkaten bere ontasunetik. Handik egun laburrik barne, oro bildurik, seme gazteenak jo zuen urrungo herri batetarat, eta han bere ontasun guzia xahutu, galdukerian biziz. Oro jan zitueneko, gosete handi bat sortu zen eskualde hartan, eta bera beharra senditzen hasi. Joan zen eta jarri hango gizon baten mutil : eta harek igorri zuen bere lurretarat, urdezain. Nahiko zukeen barnea bete urdeek jaten zitu-  
zuten leketarik ; bainan nehork ez zion emaiten. Orduan bere baitan sarturik, erran zuen : “Zonbat sehi aitaren etxean, ogia nasai dutenak, eta ni hemen goseak hil hurrana. Xutituko naiz, aitaren ganat joanen, eta erranen diot : Aita, bekatu egin dut zeruaren eta zure kontra. Ez dut gehiago zure seme izenik merezi : har nezazu sehi kondu.” Xutiturik, beraz, joan zen aitaren ganat. Urrun zelarik oraino aitak ikusi zuen, eta bihotza erdiratua, lasterka joan zitzaion bidera ; jauzi egin zion leporat eta musuka hasi. Semeak erran zion : “Aita, bekatu egin dut zeruaren eta zure kontra. Ez dut gehiago zure seme izenik merezi...” Aitak, orduan, erran zioten bere sehieri : “Laster ekar-azue soinekorik ederrena eta jauntz-ozue. Emozue eraztun bat erian, eta oinetakoak zangoetan. Ekar-azue aratxe gizona eta hil, dezagun jan eta besta egin. Ene seme hau hila baitzen eta huna nun berriz bizi den ; galdua zen eta huna aurkitua.”

**Eta hasi zuten besta. Seme zaharrena, aldiz, landan zen. Gibelatekoan, etxerat hurbildu zelarik, aditu zituen soinu eta dantzak. Sehietarik bat deitu zuen, eta galdatu zer ziren horiek. Harek erran zion : “Zure anaia da gibelerat etorria. Eta zuen aitak hil du aratxe gizona, osagarritan itzuli zaiolakotz.” Hura berriz hasarreak hartu zuen, eta ez zuen sartu nahi. Aita atera zitzaion eta otoizka hasi. Bainan semeak ihardetsi zion aitari : “Huna hoinbertze urte zure zerbitzuko naizela, egundaino zuk manatuetarik bat huts egin gabe, eta behin ere ez dautazu pittika bat eman nere adixkideekin besta baten egiteko ! Bainan zure seme hori, bere ontasun guziak neska tzarrekin jan ondoan, etorri delarik, aratxe gizona hil diozu !” Aitak ihardetsi zion : “Seme, zu beti enekin zira, eta nereak oro zureak dira. Bainan behar zen besta egin eta bozkariatu, zure anaia hila baitzen, eta berriz bizi baita ; galdua, eta huna nun den aurkitua.”**

Ebanjelioa San Luken arabera 15, 11-32

## **Kristok urririk salbatu**

**Urrikalmenduz aberatsa da Jainkoa : maitatu gaituen amodio handiaren gatik, gure hobenez hilak ginaudelarik, berriz biziarazi gaitu Kristorekin : bai graziaz zirezte salbatuak. Harekin piztu gaitu, harekin zeruan jarrarazi, Jesu Kristoren baitan. Jesu kristoren baitan guretzat on izanez, nahi zuen geroko mendeari agertu bere graziaren aberastasun nasaia. Bai, graziaz zirezte salbatuak, fedearen bidez. Eta hori ez da zuen ganik heldu, Jainkoaren dohaina da. Ez da zuen obretarik heldu ; ez da zeren espanturik egin.**

Jondoni Paulok Efesoarreri 2, 4 - 9

## **Bozkaria zaitezte**

**Bozkaria zaitezte beti, Jaunarenak izaitez !  
Berriz diozuet, bozkaria zaitezte ! Ikus dezala  
jende guziak neurria atxikitzen duzuela. Hurbil  
da Jauna ! Ez griña deusetaz, baizik gorabehera  
guzietan, ager Jainkoari zuen eskariak, otoitzez  
eta galdez eta eskerrak emanaz. Eta guk asma  
dezakeguna baino gehiago den Jainkoaren  
bakeak zainduko ditu zuen gogo-bihotzak Jesu  
Kristoren bidez.**

Jondoni Paulok Filipinoarreri 4, 4 - 7